

BERTSOEN TXOKOA

2016KO MAIATZA LEHENA MUNGIAN

1

Aurtengo maiatz lehenak gaitu Mungia herrira bildu
Moxone baserriko lagunek gaituzte gu gomiatu
Baserri hori Gotzon Garatek ardura zuen aipatu
Etxe hortako amona zuen ainitzetan galdezkatu
Eskualde hortako hizkera zuela hor apuntatu.

2

Euskal Herriko ohandzea da Mungiako eskualdea
Euskaldunen kontzientzia egin zela hor piztea
Ezen Bizkaiko semea zen Xabino adixkidea
Gure abertzaletasunaren kontzientzi sortzailea
Bai eta Gernikako arbola landatu den lur aldea.

3

Gotzon Garate gogoan dugu maiatzaren lehen huntan
Ezagutzea egin ginuen behin gizon haren baitan
Karnetaxo bat ateraturik prest zagon beti eskuetan
Hitz arraro bat entzun orduko haren gogoa zen pestan
xinaurriaren lana du egin euskararen mesedetan.

4

Urte guzietz egitearen egun bat haren omenez
Hego eta Ipar aldea elgar bilduz urtez urtez
Taldea ederra dugula orai egina guk gogo onez
Bakearen urtoa dabil euskal zeruan hegalez
Gain hartarik lagun gaitzazu Gotzon maitea otoitzez.

5

Gorrotorik gabeko mundu bat guk amesten dugula
Dezagun gure indarrak batuz egin alde in ahala
Udaberri bat itzulian hor senditzen heldu zaukula
Aspaldian nahia dugu bizi euskaldun bezala
Azkenean ardiesteko lur eremu bat zabala.

6

Beste urte bat iragan dauku goiti beheiti askorekin
Orai zer pentsa zer antolatu dezagun guk elgarrekin
Hola segitu nahi duenak bada oraino zer egin
Osasuna hor ere dago bere lege zorrotzekin
Koldo ere ez ote dago aspertua hor gurekin?

MUNGIA 2016ko Maiatza lehena

A. Martinon